

MILAKA LAGUNEN BABESA JASO ZUTEN ATZO EUSKARAK ETA IRURAKO IKASTOLAK

EUSKARAREN ALDE EGITEA ETA IKASTOLARI LAGUNTZA EMATEA AITZAKIA HARTUTA, MILAKA LAGUN BILDU ZIREN ATZO IRURAKO KILOMETROAK JAIAN. BOST GUNETAN BANATUTA ZEGOEN SEI KILOMETROKO IBILBIDEAN, ERA GUZTIETAKO EKITALDIZ GOZATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN. GOIZEAN GOIZETIK HASITA, BERTSOLARI ZEIN PAILAZOAK, EUSKAL JOKOAK ETA DANTZA IKUSKIZUNAK ESAITEN ESKUTIK, ETA MUSIKA KONTZERTUAK ERE BAI, BESTEAK BESTE, ZEA MAYS, DEABRUAK TEILATUETAN, DESORDUTAN EDO BETAGARRI TALDEEKIN.



9:30 Ikastolaren eraikin berriaren aurrean egin zuten aurtengo Kilometroak jaiko ibilbidearen irekiera ekitaldia. Izan zen, bertan, aldarrikapeneterako lekurik. Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



10:30 Goizeko bederatzia inguruan iritsi ziren lehenengo autobusak; handik aurrera, goiz osoan etengabe aritu zen jendea Irurara bertaraten. Sarrerako guneetan ibilbidearen planoak, egitaraua eta aurtengo Kilometroak jaiko pegatinak banatzen zituzten. Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



11:00 Aurreko egunetan antolatzaileek eskatu bezala, trenez edo autobusez joan zen jende gehiena. Bestalde, bizikletaz inguratzea aukeratu zutenek, zaintzapeko aparkalekua zuten bizikletak uzteko. Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS